



ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO SEKTORE PUBLIKOKO ORDEZKARIEN ETA KARGUDUN PUBLIKOEN ETIKA ETA JOKABIDE KODEA BETE DEN IKUSKATZEKO URTEKO TXOSTENA.

Administrazio publikoen gobernantza eta administrazio onari buruzko programak garatzeko, irailaren 3ko Foru Gobernu Kontseiluaren 477/2015 Erabakia dela bide, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko ordezkarien eta kargu publikodunen Etikaren eta Gobernu Onaren Kodea onetsi zen, gobernu ona lortzen laguntzeko. Gobernu ona printzipio etikoetan oinarritzen da eta ahaleginak egiten ditu herritarrek hobeto ezagut ditzaten interes orokorreko kudeaketa beren gain hartzen duten pertsonen betebeharrak.

Berriki, Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren 19.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko, 2023ko urriaren 24an, Foru Gobernu Kontseiluak Gobernu Onerako Kode Etiko berri bat onetsi zuen. Kode horrek, funtsean aurrekoaren edukiari eutsiz, zenbait alderdi berrikusten eta eguneratzen ditu, kode horrekiko atxikipena indartzeko, eta aurreko kodearen bederatzigarren apartatuaren 3. puntuan batzorde honek hautemandako inkongruentzia konpontzen du.

Kode berriak, kontuan hartuta 2015ean sortutako Sektore Publikoko Gobernu Kideen eta Kargudun Publikoen Etika Publikoko Batzordea tresna eraginkorra dela kodearen jarraipena eta ebaluazioa egiteko, mantendu egiten du. Hala ere, besteak beste gobernantzari buruzko eginkizunak izango dituen foru sail berri bat sortzearen ondorioz, batzorde horren osiera aldatu egin da, eta aurreko batzordekidea, Elena Ferreira Sebastián, Kabinete eta Komunikazio zuzendaria, Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko titularrak ordezkatu du.

Aurreko txostena orain dela ia urtebete eman zen; hain zuzen ere, 2022ko azaroaren 21ean, eta kontuan hartuta batzorde horri dagokiola batzordearen urteko jardueraren eta Etikaren eta Gobernu Onaren Kodearen betetze mailaren ikuskapenaren inguruko txostena prestatzea, honako agiri hau egin da, urtean gauzatutako jardueren kontu emateko. Agiria Foru Gobernu Kontseiluari helaraziko zaio, organo horrek ezagut dezan eta argitara dezan.

Egindako jarduketei buruzko lehenengo hurbilketa bat egiteko, adierazi behar da Etika Publikoko Batzordeak salaketa edo kexa bat besterik ez duela jaso, Kodean jasotako balio, printzipio edo jokabideen balizko ez-betetzearen inguruan, salatzailearen aurka izapidetutako diziplina prozeduraren zilegitasun etikoa dela-eta.

Horri dagokionez, etika batzorde honek xedatu zuen, 2023ko apirilaren 25eko ebazpen baten bidez, igorritako dokumentazioa eta informazioa aztertuta ezin dela ondorioztatu etikoki zilegi denaren muga gainditu duen kargu publikoen jokabide baten aurrean gaudenik.

Era berean, diputatu nagusiaren bi idazki jaso izana jakinarazi du, non, Arabako Foru Aldundiko arduradun nagusia den aldetik eta zerbitzari publikoen jarduna erabat gardena





izan dadin, kontsulta bat egiten baitu ea foru kargu publikoek Etika eta Gobernu Onaren Kodean jasotako balioak, printzipioak edo jokabideak ez dituzten bete edo haiek urratu dituzten.

Lehenengo kontsultan, foru kargu publiko baten senitarteko baten kontratazioaren esparruan egindakoa, batzorde honek erabaki zuen jarduketa horretan esku hartu zuten kargu publikoek ez zituztela urratu Kode Etikoan jasotako balio, printzipio eta jokabideei buruzko aginduak.

Beste kontsultari dagokionez, hau da, fiskaltzaren eginbideen inguruan kargu publikoari buruzko informazioen ondorioz (eraginpeko pertsonak jarduketa horien berri eman zion Batzordeari) erabakirik hartu behar den ala ez, Batzordearen iritziz, kontuan hartuta inputazioa zer inguruabarretan gertatu den, eta ebazpenean egindako kontsiderazioen arabera, aipatutako pertsonak betetzen ari den karguan jarrai dezake, auzitegi eskudunak, hala badagokio, ahozko epaiketa abiaraztea erabakitzen duen autoa eman arte.

Beste alde batetik, batzorde honek jasota utzi nahi du hemeretzi pertsona berri sartu direla Etika eta Gobernu Onaren Kodearen aplikazio eremuan, gobernu aldaketaren ondorioz. Era berean, bai haiei bai beste legegintzaldi batzuetan izendatutakoei, atxikita dauden Etika Kode berriaren kopia bat bidali zitzaion.

Batzordearen funtzionamenduaren ikuspegitik, nabarmentzekoa da batzordekideak erabat prest daudela bidalitako gaiak aztertze eta saioretara fisikoki joateko, elkarreragina bultzatuta iritziak partekatze, iritziak kontrastatze eta bere iritzipean jarritako gaiak aztertze garaian.

Azkenik, Etika Publikoko Batzordeko kideek gogorarazi nahi dute nahiz eta Kodeak eta bertan jasotako jarraipen eta ebaluazio sistemak ez bermatu goi-mailako foru karguek ez dutenik izango etikoki gaitzesteko moduko jokabiderik, integritate sistemak, zeina aurreko kodean zein gaur egungoan jasorik baitago, jokabide estandar etiko handia ezartzen du kargu publiko horientzat, eta haien jokabideak gainbegiratzeko mekanismo objektibo bat artikulatzen du.

Horregatik, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko kargudun publikoen eta ordezkarien Etikaren eta Gobernu Onaren Kodean jasota dauden **printzipio etiko eta jokabidezkoen betetze mailari dagokionez**, eta aipatutako kodearen zortzigarren apartatuko 3. puntuan xedatutakoa betetzeko asmoz, honako hauek adierazten ditugu:

Lehenengoa.- Gobernuko kideen eta Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko goi kargudunen Etika Publikoko Batzordeak ez du egiaztatu kargudun horiek aplikatzekoa zaien Etika eta Gobernu Onaren Kodean jasotako printzipio etiko eta jokabidezkoak huts egin dutenik beren karguetan.

Bigarrena.- Gobernu onaren neurriak eta gastu publikoari eusteko neurriak eta austeritateari dagozkionak betez, ez da egiaztatu era ezegokian erabili direnik Foru



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko gobernukideen eta goi kargudunen Etika Publikoaren Batzordea

Comisión de Ética Pública de los miembros del Gobierno y altos cargos del sector público foral del Territorio Histórico de Álava

Gobernuaren Kontseiluko kideek eta goi kargudunek beren esku dituzten Arabako Foru Aldundiaren jabetzako ondasun eta zerbitzuak.

Hirugarrena.- Aurreko txostena eman zenetik, hau da, 2022ko azaroaren 21etik, eta honako txosten hau sinatu den egunera arte igaro den aldian, ez da agerian jarri lehen esandako printzipio etiko eta jokabidezkoen urratzerik.

Amaitzeko, 2022ko azaroaren 21ean, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko kargudun publiko eta ordezkarien Etika Publikoaren eta Gobernu Onaren Kodean jasotzen diren aurreikuspenei dagokionez, ikusita kode hori bete dela, baieztatzeko moduan gaude ezen interes orokorrari zerbitzu eginez gauzatu dela Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko kargudun publikoen eta ordezkarien jarduna, eta kode horretan eta antolamendu juridikoan Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko jarduerak izan behar dituen printzipio nagusiak zorrozki betez.

Batzorde honek, etika azpiegiturak edo integritate kultura finkatzean aktiboki parte hartzeko, gogorarazten du osotasun instituzionaleko sistema bat benetan ezartzeko gakoetako bat dela sistema horretan jasotako jokabide balio, printzipio eta arauak zabaltzea; horretarako, barne komunikazioko eta kanpo komunikazioko ekintzak eta kanpainak egin behar dira, osotasun instituzionaleko sistemekin bat ez datozen jokabideen prebentzioa eta etika bultzatzeko. Hala, gomendagarria da foru langileentzako eta herritarrentzako komunikazioak, topaketak eta solasaldiak sustatzea, Aldundiak egindako jardueren berri emateko eta etikaren eta integritatearen inguruko eztabaida sustatzeko.

Azkenik, Etika eta Gobernu Onaren Batzordeak Etika eta Jokabide Kodearen ezagutza bultzatzen jarraituko du, erakunde honen kudeaketa publikoaren egunerokotasunean sor daitezkeen zalantzak argitzearen bidez bere jardun eremuan eta pertsona guztiek erakundeekiko eta haien ordezkariakiko duten konfiantza hobetzen eta etika eta integritate instituzionala bermatzen lagunduko duen edozein ekintza edo neurriren bidez.

Gasteiz, 2023ko abenduaren 12.